

KARKARA

ORIKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko urriaren 30a / 267. zenbakia

- HASI BERTSOTAN **Xabier Sukia** 03
- HERRIKO KONTUAK **Egunkaria auzia** 05
- KIROL ELKARRIZKETA **Sonia Ziani** 09
- AIAKO BERRI **Kintopeko Idi Probak** 11
- IRITZIA **Eñaut Martí** 18
- HERRITARRA **Gerardo Azkue eta Josu Sukia** 25



DBHrako **eraikina**
du Herri Ikastolak

Bide luzea izan da orain artekoa, baina inauguratu dute Ikastolaren eraikin berria, ikasleek baliabide hobeak izan ditzaten.

HAIZE BERRI
taberna-jatebidea-kaletegia

Plater konbinatuak,
bobotak,
hamburgerak,
raboak,
eguneko menua...

eta ezera eramateko zerbitzua!

© 2008 Inbidea, S.L. - 191017121 - Adreko garrantzi Oria

Lizaso
dekorazioa



Eusko Gudari, 48
Tf: 943 83 07 84 Fax: 943 24 57 15

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TORMOKAK - BALBULAK



Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
180 9000

Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtaginduna

edariategia
ANTILLA
jatebidea



Norsari Kalea, 2 - Tel. 943 83 21 23

Orioko
Ogia



ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontal ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

Kinkladenda- Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine

Eusko Gudariak, 9 ORIO
Tel. 943 13 48 89

Ille apaindegia
MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

SOLOZABAL
autoeskola



Eusko Gudari, 30-1. ezk
telefon: 943 83 08 12

FISIOTERAPIA Gorkitz Arriegi eta Nabilis Werezzen
NUTRIZIONISTA Gorkitz Arriegi



sinergia investigacion
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

Automóviles
ZARAUZ

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

torgeta berrak
eta it berrak
sare

ZARAUZ. Tel. 943 13 13 50



islada
estetika zentrua

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Kalearen kalea, 2 behe Orio ondo
Tf: 943 133 836
e-maila: isladaorio@hotmail.com

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

THE ACADEMY OF ENGLISH



A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Eusko Gudari kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 1
Tel: 943 83 16 57

Faroeko bakailaoa
daukagu

ITSAS
MENDI

gutuzlak

Eusko Gudari, 5 Tel: 943 24 87 74 Orio

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Mikel Aranzabal

Erredakzio taldeaPat Cowie, Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga eta
Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Mikel Aranzabal

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**

Jon Ander Azpiroz eta Eñaut Marti

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakEkiñe Miralles eta
Goiuri Unanue (Orio)
Ainize Sayago (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.100 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esaneren edota
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Eusko Jaurlaritzaren

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Odoleztatutako paperak

XABIER SUKIAK ETA IÑIGO MANZISIDOR "MANTXIK" TXAPELKETA NAGUSIKO LEITZAKO SAIOAN KANTATUAK

SukiaPapelerako akzionista,
gu beti paperen gose.
Fabrika hontan orduak labur
ta irabaziak luze.
Banan-banaka gutxituz goaz,
ia bakarrik oraintxe.
Bizitzak doaz haizearekin
papertxoak bezelaxe.**Mantxi**Ni akziodun nagusia naiz,
Korbatadun ta PPko,
ta diru asko mugitu ohi det
besteren lana tarteko.
Ulertu zazu zergatik nagon
lutoz, kopeta beltzeko.
Jada hamabi gutxio dauzkat
odola zurrupatzeko.**Sukia**Ikusten dizut kentzea dela
zure gogoa, disputa.
Beti besteei odola kendu,
kendu ta kendu, zurrupa.
Ta enpresako korbataduna
gizalegea ahaztuta,
Zure papera bete ezinik
beti paperak galduta.**Mantxi**Batzuk lanean zeramazkiten
hemen hamaikatxo urte.
Gu izan gera beren etxeko
zimendu eta arkupe.
Ta *anda la ostia!* Ofizinako
leyotik saltoa bete.
Nik bizitzeko lan eman nien,
eurek erabaki dute.**Sukia**Erabakia oso gogorra
gertatzen zaigu askotan.
Askok burua zintzilikatu
dute etxeko leihotan.
Letra txikia, txikiegia,
jarriz zure kontratotan.
Berrogei urte sartzen al dira
zure berrogei lerrotan?**Mantxi**Zu ni bezela hasi zinan behin
bestei zurrupatzekotan,
ikusten zaitut jende aurrean
triste dagonaren kotan.
Halataz ere diru putzutan
ibiltzen zera askotan
ta irribarre bat nabari zaizu
krokodrilozko malkotan.

ALBERTO ELOSEGI

PUBLIZITATE PREZIOAK**IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zaie**LAGUNTZAILEAK**

Gaztetxea lortzeko, zatozte gurekin!

Sanikolasak badatoz eta gazteak bizirik gaudela erakutsi behar dugu berriz.

Abenduaren 4a, bezperaren bezpera antolatu behar dugu aurtengo festetan eta, horretarako, herriko koadrilei dei egiten dizuegu, berriz, Gazte Festetan bezala, egitaraua denon artean jorrazteko eta lana banatzeko. Azaroaren 4. ean, asteazkenarekin, izango da bilera eguna, 19:00etan, kultur etxean.

Beste aukera bat dugu oraingoa, Orioko gazteria askotakoa, irekia eta bateratua dela ikus dezaten herritarrek, batez ere Udalak, eta denontzako moduko toki bat behar dugula ohar daitezen, behingoz. Leku hori gaztetxea da: etxe publikoa, irekia eta bizia.

Herritarrei ere adierazi nahi diegu gaztetxea sortzearen aldeko 1.115 sinadura bildu ditugula eta koadrilek eta talde eragile askok ere beren babesa eman digutela aurten, gauzak ondo egiten ari garen seinale; beraz, badakizue, gaztetxea lortzeko, zatozte gurekin!

OKK GAZTE ASANBLADA

Dena ez da hain polita

Hitzaldi zentzuduna iruditu zitzaidan hik-herriko alkateak- ikastolako eraikin berria inauguratzerakoan botatakoa. Eraikuntza gorai patu

GUTUNERAKO OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@karkara.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

beharrean, heziketaren balioak gorai patzea ederra duk eta garrantzia handia ematen zio-at horri nik ere.

Gainera, ez diat inongo dudarik, irakasleek errespetuan oinarritutako heziketa egokia ematen dietela herriko haurrei eta gazteei. Baina balioak, azkenean, ez hituan aipatu, eta idatzi hau erabiliko diat horretarako.

Elkarrekiko errespetua, elkarlaguntza, askatasuna, bakea, naturarekiko harreman estua eta errespetuzkoa, osasuntsu sentitzea, solidaritatea, inbidiarik ez izatea, lasaitasuna, norberak duenaren hausnarketak egin eta hortik abiatzea... horiek dituk, nire ustez, miretsi beharreko balioak.

Hi ez haut balio horiekin ikusten. Ez duk errespetu handirik erakusten herriko haur horiengana, hormigoia eta gas kutsakor eta hilkorrak bideratzen baitizkiek erraus-tegiari alde egiterakoan.

Aldeko jarrerara horren bidez, ahora eramaten ditugun animalien eta barazkien

ingurua kutsarazten duk; mendiak harriak ateratzeko eta porlana sortzeko direla erakusten diek; minbizia areagotzen diek gure herriko haurrei; denda txikietatik bizi den jendeak merkatalgune handietatik bizi direnek baino balio gutxiago dutela erakusten diek...

Ez haiz oso eredugarria gure haurrentzat.

IBONI

Kokoteraino lokatza zapaltzeaz

Egunero lokatz eta putzu handien gainean ibili behar izaten naiz kalera ateratzen naizen bakoitzean. Eta kokoteraino nago!

Arratola-aldea auzoan bizi naiz. Trenaren obrak direla eta, gehienetan ezinezkoa da tarte txiki bat bilatzeko errepidean oinez igarotzeko. Kotxean apenas nabil, oinez ibiltzearen aldekoa naiz eta. Ikastolara joateko, enkarguak

egiteko, eta dena delakoa egiteko, oinez noa kalera. Baina dagoeneko erreta nago hainbeste zikin artean ibiltzeaz. Aiako udaletxera deitu izan dut behin baino gehiagotan (eta ez naiz bakarra), baina egoerak berdin jarraitzen du. Umeen gurgildun kotxea erabat zikina eta itxuragabekoa dago: etxe barrura ere zikin-keria pila sartzen da.

Arratola kaleko aldapa ere garbitu beharra dagoela uste dut. Espaloia eta errepedea hautsez beteta daude. Hauts pila arnasten ari gara azken hilabeteotan.

Nik, Aiako herritarra naizen honek, Udalari eskatzen diot arazoak konpontzeko. Beste herritarrek bezela zergak ordaintzen ditut, eta ez dut uste eskubiderik dagoenik egunero pasa behar dudun kalbario hori pasatzeko.

Beraz, Aiako Udalari exijitzen diot behin betiko eta lehenbailehen konpondu dezala dena.

Adeitasunez.

NAGORE SOLAGUREN

Berokia itzuli!

Duela hiru bat aste, alaba eramane Orioko Danbolin musika eskolara. Beroki bake-roa sarrerako pertxan utzi zuen gure txikiak, beste guztiek bezala. Klasea bukatu eta niregana zetorrela, a ze sorpresa! berokia falta.

Berokiak umearen izena jarrita du, baina, hala eta guztiz ere, ez da azaldu. Norbait bai azala! ze hartu duenak ederki asko daki beroki hori ez dela berea.

KARMELE OLIDEN



azkue

Tf: 943 13 04 38



Agentea: Olariaga

Berezitasunak:

- ✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.
- ✓ Aseguru artekaritza.
- ✓ Finken administrazioa.

Beasoak 4, beheak. Tel: 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 98 www.torrealday.com e-mail: olariaga@olariaga.com



Pinturak ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Abendaño industrialdia
943 83 78 45 / 61 60 23 35
ZARBAUTZ

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN AUZIA AZAROAN IKUSIKO DA MADRILEN

Egunkariaren aldeko mugimendua indartu nahian

Urriaren 22an udaletxeko batzar aretoan Egunkaria auziaren egoeraren berri eman zuten Jakes Goikoetxea eta Idurre Lizarralde kazetariak. Azaroaren erdian hasiko da epaiketa Madrilén eta horren aurrean zerbait antolatu nahian dabilta.

Hitzaldiaren hasieran Euskaldunon Egunkariaren itxierrari buruzko bideo bat eman zuten eta kazeta itxi zuten unetik gaur arte gertatutakoak kontatzen ditu Martxelo Otamendik, Egunkariako zuzendaria izan zenak.

Jakes Goikoetxeak sei urte eta erdi igaro direla eta gorabehera denak ondo jarraitzea zaila izan denez, herriz herri berriz ere informazioa zabaltzea erabaki dutela esan zuten, batez ere, epaiketa gainean delako. Jendearen babes bila ere badabiltzala adierazi zuten Goikoetxeak.

Solasaldiaren zati garrantzitsuena sumarioaren inguruko datuak hartu zuten. Bitan banatuta dago sumarioa: alde batetik, nagusia dago 5 auzipeturekin eta, bestetik, ekonomikoa, 8rekin. Martin Ugalderen kasua azpimarratu zuten hasieran, garai hartan Egunkariaren ohorezko lehendakari zenarena. Egunkaria itxi bezperan, kontu korranteak blokeatu zizkieten Ugalderi eta bi mediku informeri esker, ez zuten deklaratu behar izan. Kontuak blokeatuta zituela hil zela ere gaineratu zuten Jakes Goikoetxeak.

BIDEGABEKERIA

Kazetariak eman zituzten datuen arabera, fiskalak berak aitortu du ez dagoela Egunkaria auzian delitu zantzurik eta, horregatik, sumario nagusia ixtea eskatu du.



Jakes Goikoetxeak eta Idurre Lizarralde eman zuten egoeraren berri.

KARKARA

Sumario ekonomikoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak kazeta euskaldunaren kontuak erabat garbiak zirela baieztatu

zuten. Epaiketa bertan behera geratzeko esperantza izan arren Egunkariakoak, beste kasu batzuetan ez bezala –Emilio Botin, Banco San-

tanderko nagusiaren kasua– *Dignidad y Justicia* eta AVTren herri akusazioarekin nahikoa iruditu zaio epaileari eta aurreara egingo du.

Librea eta euskalduna, izatez

Euskaraz jasotzen genuen munduko edozein bazterretan gertatutakoaren berri, eta beste inork ez zigun hori horrela ematen, Euskaldunon Egunkariak bakarrik: horregatik zen gure periodikoa.

Itxi egin zuten eta gezurra zabaldu, beldurra sortzeko, gu isiltzeko, zer garen ezkutatzeko. Ez zuten lortu, ez dute lortuko. Ez dugu Egunkariarik, baina KARKARA edo Berria, Argia edo Hitz... zabal-tzen ditugun bakoitzean bidegabekeria haren kontra egiten dugu.

Izatez zer garen erakusten dugun bakoitzean, orduan ematen diegu benetan mina.

ANA G. DE TXABARRI | KARKARAREN ZUZENDARIA

BABES ESKE

Sumario nagusiaren epaiketa da orain egingo dutena. Bost auziperatuei –Auzmendi, Oleaga, Otamendi, Torrealdei eta Uria– babesema-teko, epaiketaren aurreko larunbatean manifestazio nazionala deituko dute Bilbon. Hara joateko autobusak jartzea pentsatzen ari dira.

Bitartean, gastuei aurre egiten laguntzeko kamisetak eta bonoak jarri dituzte salgai. Azaroaren 28an Kursalean jaialdi bat ere egingo dute eta Orion zerbait egin ahal izateko batzordea osatzeko nahia adierazi zuten.

MOMENTUZ, PROGRAMAN BERRIKUNTZA NABARMENIK EZ DAGO

Hasita daude bilerak sanikolasak antolatzen

Urriaren 26an egin zen lehenbiziko bilera eta azaroaren 2an izango da bigarrena. Aurrerantzean, astelehenero biltzekotan da batzordea.

Orioko Udaleko festa batzordeak urriaren 26rako deitu zuen sanikolasak antolatzen herri batzordearen lehen bilera. Talai-Mendi, Harribil, Herrio, Txurumuski, Orioko Herri Ikastola eta OKK talde eragileekin batera, txistulariak, tabernariak eta Euskaldunon Egunkariaren aldeko batzordeko kide bat ere azaldu ziren bilerara eta, bertan, festa egunak zein izango diren zehaztu zuten lehenengo: abenduaren 4an edo 5ean hasi eta 8an bukatuko dira. Horretaz gain, egitarauari forma ematen hasi ziren eta, dagoeneko, badaude gauza batzuk erabakita.

BEHIN-BEHINEKO EGITARAUA

Gazteek eta tabernariak festak abenduaren 4an, ostiralean, hastea eskatu zuten eta Udalak begi onez ikusi zuen proposamena. Haiena izango da egun horretako egitaraua betetzeko ardura; baina, aurrena, baloratu behar dute ea nahiko jende badagoen, antolaketa lanetarako. Festa egun horretan hasiko balitz, gazteen kontzertua antolatuko lukete, kanpotarrak erakartzeko aldera.

Larunbatean, Sanikolas bezperan, eguerdian egingo



Euskal Jaia abenduaren 7an, astelehenean, izango da.

KARKARA

San Nikolas egunean izango da bertsozaleen Orioko urteko zita nagusia, kiroldegian

da txupinazo ofiziala eta orduetik aurrera hasiko da adin guztientzako pentsatutako festa programa.

Igandean, San Nikolas egunean, bertso jaialdia izango da Errikotxiako eskutik, 22:00etan, kiroldegian.

Azken egunean ospatzeak iaz balorazio txarra izan zuela ikusita, Euskal Jaia abenduaren 7an egingo da. Oraingoan ere, kalera baserritar edo arrantzale jantzi ateratzeko deia egingo du batzordeak.

Asteartean, berriz, egitarau simplea izatea espero da, festak bukatu eta hurrengo egunean lanera edo eskolara joateko eguna baita.

LABUR

UDALA Informatika ikastaroa

Ekintza Ekonomikoetako eta Enpleguko udal batzordeak langabetuentzat oinarritzko informatika ikastaroa antolatu du. Doakoa izango da eta 30 ordu iraungo du. Azaroaren 5erako eman beharko da izena udaletxean, INEMeko txartelaren kopia aurkeztuz, baina azarora erdira arte ez dira hasiko klaseak.

Ikastaroa euskaraz zein gaztelaniaz egiteko aukera dago eta, izena ematen duen jendearen arabera, talde bat edo bi osatuko dira. Hasiera batean, eskolak arratsaldean izango dira, 17:00etatik 19:00etara.

Atez ateko bilketari baietz

Atez ateko zabor bilketaren aldeko bi mozio onartu ziren azken Udaltzatarran –Ezker Abertzalearena bata eta Aralarrena bestea; biak EA eta EBren babesarekin–. Hau eskatu zitzaion Udalari: Orioko hondakinak erraustegira ez bideratzea; Aldundiari eta Donostiako Udalari errauste plantaren proiektua bertan behera uzteko eskatzea; eta, Aldundiari eskatzea atez ateko gaikako zabor bilketaren aldeko apustua egiteko eta erraustegirik ez egiteko.

Oraingoz ez da atez ateko bilketa martxan jarriko Orion, baina lehen pausoa da horretarako.

tailer mekanikoa

AUTO-LAN C. B.

urrutira joan gabe talde herria zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34

Gabon

TABERNA

plater karkara eta pintxoak

Tfma: 943 83 06 09

aroztegia **MIRANDA**

larri eta lezaiz

tarima, ata, lila, azalera... behar diren arazoak eragingo dizkigu

Udaltzaren bidez: 1-669 42 32 70- ZABAI

FINALERDIETAN, TOLOSAKO USABAL KIROLDEGIAN, KANTATUKO DU AZAROAREN 14AN

Gurrutxaga aurrera bertsolari txapelketan

Zestoan kantatu zuen Gurrutxagak eta Leitzan Sukiak. Biak beste saioei begira egon ziren, puntuaketaren baitan baitzegoen aurrera egin ala ez. Azkenean, Gurrutxagak aurrera egingo du eta Sukiak ezin izango du finalerdietan kantatu.

Lehenengo saioan egokitu izanak uste baino abantaila gehiago ekarri zizkion Gurrutxagari. Bertso saio polita eskaini zuten Zestoako pilotalekuan bertsolariak, umorez josia. 642,5 punturekin hirugarrena izan zen Zestoan, baina, bertaratu zirenen esanetan, tarte handiegia azaldu zen puntuaketan bigarren izan zen Uxue Alberdiren eta Iñaki Gurrutxagaren artean.

Astebete beranduago kantatu zuen Xabier Sukiak Leitzako kiroldegian. Hango saioa laua izan zen, zozogegia une batzuetan. Bertsoaldi onentsuena Sukiak berak Iñigo Manzisidor *Mantxi* zarauztarrarekin egin zuena izan zen. Baina Sukia, agian, ez zuten ondo puntuatu bertsoaldi horretan bota zituenengatik. Saioaren bukaeran laugarren izan zen 604 punturekin. Bertsoak borobiltzea besterik ez zitzaion falta izan oriotarrari.

TENTSIOA

Gurrutxagak Leitzakoaren



Sukia eta Gurrutxaga gogoz jardun ziren bertsoetan bakoitza bere saioan.

KARKARA

ostean esperantza izateko arrazoirik bazeukan, izan ere, lehenak 643 puntu lortu zituen.

Hala ere, Bilbon ere lehen sailkatuak 643 puntu egin zituela eta gainontzekoak atzetik zirela ikustean, lasaitasun handiagorekin ibili zen Gurrutxaga. Zarauzko saioa bukatu zenean jakin zuten bi oriotarrek bakarrak egingo zuela aurrera.

Laudioko saioaren zain geratu behar izan zuen Iñakik, non kantatu behar zuen jakiteko.

FINALERDIA

Laudioko saioko puntuaketak erabaki zuen non kantatuko duen Gurrutxagak. Bertsolariaren nahia Hendaian kantatzea zen, konfiantzako bertsolariak izango baitira hango saioan, baina Tolosan egokitu zaio eta ez da kexu. *Bertsolari asko izango gara kantari, kolore askotakoak, eta hori gure alde erabiltzen jakitea garrantzitsua izango da*, esan zuen Iñakik. Saioa, azaroaren 14an izango da Usabal kiroldegian, 17:30etik aurrera.

Leitzakoaren ostean esperantza izateko arrazoirik bazeukan Gurrutxagak, lehenak 643 puntu lortu zituen eta

BERTSO ESKOLA

Bestalde, Errikotxia bertso elkarte ere jarri da martxan, ostegunetan, eta momentuz 11 ikasle hasi dira.

Goizeko
KAFETEGIA

☎ 943 83 28 55

Aria Lorxundi 33 beheak - ORIO
Autobus parada ondoan



RAMIRO
argazkiak

943 83 10 48
610 697 668
www.fotoramiro.com

tel/fax: 943 89 00 69
Bilbao kalea, 4. 20.800 ZIRAUZ

URBIDE s.l.

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA BAINU ERAKUSKETA



Iazko Herri Kroseko helduen probako irteera unea.

KARKARA

4. EDIZIOA BEHAR ZUEN AURTENGOAK

Aurten ez da izango krosik parte hartzea jaitsi delako

Gehiegizko diru inbertsioa iruditu zaio Udalari dudako parte hartzea duen proba baterako. Orain, beste aukera batzuk aztertzen ari dira kirol batzordean.

Urriaren 31n, larunbatarekin, jokatu behar zen Orioko 4. Herri Krosa eta hala iragarrita zegoen Gipuzkoako Atletismo Federazioaren egutegian ere, baina Orioko Udalak zita bertan behera uztea erabaki du. Antza denez, urtekiturtera parte hartzeak behera egin du nabarmen, eta aurtengorako ere ez zuten aurreikuspen onik egiten.

Urte sasoi honetan, Behobia-Donostia lasterketa prestatzen aritzen dira korrikalariak eta, horren inguruan, herri askotan egiten dira lasterketak, sasoi puntua egokitzeko. Esaterako, Orioko Herri Krosa egiteko zen egun berean ere, Azpeitiko Bikote Mis-

toen Krosa eta Olatz Rementieraren omenez Soraluzetik Bergararaino egiten den Antxintxika Krosa ere baziren deituta.

AUKERAK

Herri Krosa beste egun batera pasatzea pentsatzen ari da orain Orioko Udala, baina gehiegizko diru inbertsioa iruditzen zaio dudako parte hartzea eta etorkizuna duen proba baterako, batez ere denboraldiz kanpo egiten bada, eta gehiegi arriskatzeko beldur dira. Horren ordez, egutegian triatloi edota igeriketa proba ezartzea ari dira hausnartzen.

ORIOK BEHOBIARA

Azaroaren 8an jokatu da aurten Behobia-Donostia lasterketa eta bertara joateko autobusa antolatu du Juan Angel Garmendia *Xarpasek*. 08:30ean abiatuko da

Behobia-Donostia lasterketara joateko, korrikalariarentzat autobusa antolatu du Juan Angel Garmendiak

Donostia alderako autobus geltokitik eta Behobiara joko du zuzenean, beraz, korrikalariarentzat bakarrik izango da.

Berrogeita hamabost lagunek eman dute izena dagoeneko eta autobusa bete da. Norbait gehiagok joan nahiko balu, lehenbailehen eman behar dio abisua *Xarpasi* eta, dozena inguru lagun elkartuz gero, beste autobus txiki bat antolatzeke aukera ere izan daiteke. 10 euro balio du joan-etorriak.

LABUR

SASKIBALOA

Ikastolako nesken lehen garaipena

Urriaren 18ko asteburuan, Orioko ikastolako neskek lehen garaipena lortu zuten Ordiziaren aurka. Nahikoa erraz irabazi zuten 50-20.

Dena dela, bigarren partidaren 20-0 galdu zuten, behar adina jokalaria ez zelako joan partidara. Hala ere, lider dira, beste taldeak atsedenaldian dira-eta.

ARETO FUTBOLA

Txukun hasi da Orioko Tabernak

Denboraldia modu onean hasi dute Orioko Tabernakeko mutilek. Taldean aldaketak izan arren, oso ondo ari dira jokatzeko.

Nahiz eta azken partidaren galdu, hiru irabazi dituzte eta, horrela, sailkapeneko seigarrenak dira oriotarrak. Hurrengo partida urriaren 31n izango dute, Karelana arratsaldeko 16:00etan Jarrilerros talde gogorraren aurka.

FUTBOLA

Jubenilak atzean

Ohorezko maila gogorra dela gauza jakina da, eta Orioko Futbol Taldekoak konturatu dira, dagoeneko, zer den hori.

Zazpi partida jokatu dituzte eta azken asteburura arte zain egon behar izan dute lehen garaipena lortzeko. Azkena zenaren aurka irabazi zuten igandean 3-1.

Azken bigarren daude orain oriotarrak 4 puntu eskasekin. Urriaren 31n Beasainen jokatu dute, Loinazpen.

SONIA ZIANI | LONGBOARDERRA

“Baliabide gutxi ditugu hemen zerbait egitekotan”

Sonia Ziani, askorentzat Kamelen arreba gaztea izango da, baina, dagoeneko, 19 urte ditu eta bere lekua egin du: atletismoan saiatu eta gero, *longboard*-ean ari da.

Longboarda nolatan ezagutu zenuen?

Nik skatearekin jarduten nuen. Antillan, U-ko parkean ibiltzen nintzen tarteka, duela 2 urte ingutu. Donostian ikasten nuen eta bertan sortu zitzaidan ohol gainean aritzeko zaletasuna.

Tarteka mutil bat agertzen zen han *longboard*arekin eta kuriositateari ezin eutsita, berarengana joan eta lotsagabe-lotsagabe uzteko eskatu nion. Bizpahiru aldiz probatu eta neurea erostea erabaki nuen.

Hortik lehiatzera alde handia dago, ordea.


Burua berotu zidatelako hasi nintzen lehiaketetara aurkezten. Urtebete eskas daramat *longboard*arekin, aurreko udatik edo, eta uste baino errazago hartu diodala neuria pentsatzen dut.

Hortik aurrera, jendea aurkezteko esaten hasi zitzaidan eta, azkenean, animatu egin nintzen. Egia esan, hemen oraindik ez dago maila handirik, neskak eta mutilak kategoria berean aritzen gara eta bat kenduta, gainontzeako antzeko ibiltzen gara.

Aipatzen duzun horrekiko alde handia al da ba?

Munduko txapelkunordea da. Bera da inguruan dagoen profesional bakarra eta, gainera, *longboard*ak egiten ditu.

Diruz ondo dabilen bakarra da eta Bartzelonan egiten diren txapelketetan izateko aukera du



Sonia Ziani Tolosara joaten da *longboard*arekin entrenatzera.

KARKARA

Orioko skate gunea Euskal Herriko onenen artean kokatzen dute. Uste dena baino jende gehiago etortzen da Oriora

Kontaiguzu pixka bat ezjakinoi nolakoa den kirola.

Ez dauka misterio handiegirik. Hiru modalitate daude: *freeride*, *slide* eta *slalom*. Lehenengo modalitatea goitibeheren antzekoa da. Aldapatik jaisten gara eta denbora onena egiten duenak ira-

Urtebete eskas daramat *longboard*arekin. Uste baino errazago hartu nion neurria

bazten du. *Slide* modalitatean, malda txiki batean jartzen gara. Busti egiten dute malda eta derrape onenak jasotzen ditu puntu gehien. *Slalom*-an arranpla batetik jaisten gara abiadura hartzeko. Gero kono batzuk ditugu eta zigizagan guztien artetik igaro

behar da. Gehienez ere bi bota daitezke.

Puntuaketa sistemak ezberdinak dira guztietan, egiten diren trikimailuak eta estiloa puntuatzen dira besteak beste.

Zer moduz moldatzen zarete zuen artean *longboard* zaleak?

Egia esan, oso ongi. Koadrila bat biltzen gara eta guztion artean lagundu. Hori bai, agian, egiten dugun trikimailu berriren bat edo txapelketarako gorde nahi izaten dugu, eta ez diegu besteei irakasten.

Askotan erori al zara?

Oinez ibiltzean ere ikasten duzu nola erori, eta hemen ere bai. Ulian behera nindoala izan nuen eroriko handiena, harri txiki baten erruz. Kolpe ederra hartu nuen!

Ulian erori zirela esan duzu. Non ibiltzen zarete?

Donostian Uliamendiaren magalean dauden aldapetan entrenatzeko modua egiten dugu eta Tolosan industriale batean ibiltzen ginen, baina orain isunak jartzen dizkigute eta ez gara hainbeste joaten.

Pena da Orio bezalako herri batean ezin ibili izatea. Orioko skate gunea, Antillako parkeko U-a, Euskal Herriko onenen artean omen dago, baina txukuntzea falta zaio. Uste dena baino jende gehiago etortzen da gure herrira skatearekin; Bilbo ingurutik ere bai, esaterako.

Orain ume batzuk ere ba omen dabilta inguru hori dena berritzeko eskatzen, eta horrek asko pozten nau.

Behin, udaletxera joan nintzen eta deituko zidatela esan zidaten, eta oraindik zain nago.

HASSAN BOUACHA | LANGILEA

“Langilea baino gehiago boluntarioa izan behar da”

la urtebete eman zuen drogen menpekotasunean bizi diren gazte marokoarrek Inurriotz Azpi zentroan. Eskarmentu gogorra izan zen Hassanentzat eta ez dago ados bertan egiten den guztiarekin.

Zer da Inurriotz Azpi?


Adin gutxiko inmigrante-entzako zentroetan, droga hartzeagatik arazoak sortu dituztenak jasotzeko zentroa da. Hirietatik urrun jarri nahi dituzte, nahiz eta klaseetara eta txangoetara atera, droga erosteko aukera gutxitzeko. Disolbatzaileak erabiltzen dituzte gehien bat, merkea baita, eta Inurriotz Azpin ere jarraitzen dute erabiltzen, kalean erosten baitute. Teoriaz bi-lau hilabetean utzi behar dute droga. Gaizki portatzen badira, berriz, Debako zentro gogorrera, *Kosovora*, bidaltzen dituzte.

Zergatik hasi zinen han?

Kamel Ziani hango sukaldaria da eta berak aipatu zidan. Hizkuntza eta kulturagatik ni bezalakoak hartu nahi zituen Diputazioarentzat zentroak antolatzen dituen Dianova enpresak, batez ere gaueko txanda egiteko, hemengoek ez baitute gauez egin nahi. Batxilergoa eskola militar on batean egin nuen eta badakit diziplina, arauak eta betebeharrak zer diren. Egokia nintzen lan horretarako eta, gainera, etxetik hurbil neukan.

Nolako esperientzia izan da?

Oso gogorra, oso zaila. Gazte horiek oso ondo dakite zeintzuk diren eskubideak, baina ez dute ezer jakin nahi betebeharren inguruan. Ondo tratatzen dituzte: astean 20 euro eman, ikastetxe publi-



Gogorra zein betegarria izan da marokoarrek Inurriotz lan egitea.

KARKARA

Disolbentearekin drogatzen dira, eta Etorri Zazpin daudela ere, lortzen dute

koetan ikastaroak eskaini, kalera, igerilekura, hondartzara eraman... Baina ezin dira hurrengo urratsera pasa drogak hartzen dituzten bitartean. Drogekin jarraitzen dutenek izugarritzko triskantzak antolatzen dituzte, batez ere gauez. Ez dira eguneko arauak betetzen –goiz jaiki, klasetara joan– eta arratsaldean hasten dira oldartzen.

Haiek baino babes eta eskubide gutxiago dituzula sentitzen duzu askotan

Gaueko edozein ordutan jan nahi dute, eta ezetz esaten diezunean, hasten dira dena puskatzen.

Beldurrik pasa duzu?

Batzuetan, bai. 6-8 nerabe haserre bizian eta disolbatzailea esnifatu ondoren beldurtzeko gauza dira. Batzuetan sentitzen duzu haiek baino babes eta esku-

bide gutxiago dituzula.

Eta zuzendariek zer diote?

Hor dago koska. Teoria eta hitz asko dituzte, baina ez dakite zer den lan hori. Esaten diegu beste irtenbide batzuk behar direla, baina ez digute kasurik egin nahi: haiek zuzendariek dira eta guk langileak. Nola pentsa daiteke urteetan drogekin bizi denak hilabete gutxian gaingaituko duela? Eta halako gazteen iragana ikusita, are gutxiago. Nik ikusten badut baten portatara %60 hobetu dela, asko da, eta egin duen akats pare batengatik ezin da dena pikutara bota eta mutila *Kosovora* bidali. Hori galbidea da. Horrelakoetan, gazte askok delitua egiten dute, nahita eta bistan, epaiketara joateko helburuarekin, jakinda gero *Kosovon* baino aukera gehiago izango dutela ikastaroak egiteko eta hemen bizitzeko baimena lortzeko.

Zure ustez, zer egin behar da bada?

Halako zentroetan psikologo bat behar da egunero, gazteekin harreman estuagoa lantzeko, eta ez hilean behin, orain egiten den bezala. Esperientzia duten hezitzaileak behar dira: teoria asko duten tituludun gazteek ez dakite arazoari nola heldu. Gainera, nik egindako lana egiteko boluntarioa izan behar dalangilea baino gehiago.

Alde onik bizi izan duzu?

Bai, eskerrak, azkenean lanetik bota banaute ere. Zure eskuetatik pasa den gazte bat Donostian ikusten duzunean eta kontaktzen dizunean lana duela, drogazeharo alboratuta duela, pisu bat konpartitzen ari dela... Horrek izugarritzko poza ematen dit.

PROBALEKUAN IZANGO DIRA DEMA GUZTIAK, GAUEKO 10ETAN

Kintopeko Idi Probak azaroaren 6tik 10era

Aiako idi probak garrantzi handikoak dira Euskal Herriko egutegian. Idi-pare onenak izaten dira bertan.

Urteroko hitzorduari eutsiz, Kintopeko Idi Proben zortzigarren edizioa jokatu da azaroaren 6an, 7an, 9an eta 10ean Aiako Udal Probalekuan

PARTE HARTZAILEAK


Azaroaren 6an, ostiralarekin, egingo da lehen proba. Patxi Irlarreta errenteriarra Oiarzungo Jose Aburuzaren aurkalehiatuko da. Gau hori izango da bi parte hartzaile bakarrik izango dituen bakarra.

Hurrengo egunean, larunbatean, Gabriel Odriozola eta Zelestino Aburuza oiartzuarren eta Ezkio-Itxasoko Igeldoren hiru idi-pareak arituko dira nor baino nor.

Astlehenean, azaroaren 9an, Errenteriako Irarreta anaiak, Lezoko Jose Luis Arzadun eta Zumarragako Fernando Belarretak hartuko dute parte.

Azaroaren 10ean, asteartearrekin, jokatu da azken proba. Rafael Irarreta errenteriarra, Iñaki Oliden oriotarra eta Jesus Garaiar oiartzuarra arituko dira lehian.

Beraz, lau egunetan, hamaika idi-pare arituko dira guztira, baina, oraingoan ere, aurreko urtean bezala, ez da aiarrik izango herriko dema plazan.



lazko kintopeko probako idi-pare deman.

KARKARA

Iñaki Oliden oriotarra izango da bertan, Armendiko Arantxa Etxaberen semea

AIARRIK EZ

Iaz bezala, ez da Aiako idi-parerik izango deman. Urdanetako sanmartinetan Izetarren idiak lehian arituko

badira ere, Aiako dema-plazan ez dira izango.

Dena den, Iñaki Oliden oriotarra izango da bertan, Armendiko Arantxa Etxaberen semea. Olidenean esan digunez Arzadunen idi-pare indartsu dabil eta azken egunean arituko direnak ere bai. Bere idietaz galdetzean, ondo dau dela esan digu. Azken lau probak irabazi ditu Iñakik.

Diru kontuak ere aidean daude eta apustueta krisiak eraginik ez du, jendea gogoz ari da eta trabes egiten.

LABUR

URDANETAKO FESTAK Bertso afaria

Azaroaren 14an, bertso afaria egingo da Urdanetako frontoian. Burduntzian erretako betizuarekin batera sagardoa ere izango da eta Paia, Lizaso eta Mendiluze bertsolariek eta Izer eta Alabier trikitilariak alaituko dute giroa. Txartelak Urdanetako Izarra, Begoña eta Izeta tabernetan eta Zarauzko Arralde tabernan eta Azken Portuko Otzarreta harategian daude salgai 25 eurotan. Txartelak erosteko azken eguna azaroaren 8a izango da.

UDALA

Aldi baterako lan eskaintza

Abendurako kultur etxeko langile ordezkapena egiteko eskaintza kaleratu du Udalak. Urte hasieratik Aian erroldatuta egotea, langabetua izatea, ordenagailua erabiltzen jakitea eta euskaraz hitz egiten eta idazten jakitea dira baldintzak. Kultur etxean eman behar da izena azaroaren 5erako eta langilea zozketa bidez aukeratuko da azaroaren 10ean, 12:00etan, kultur etxean.

Etxea salgai

Armendi-Gaineko etxea salgai jarri du Udalak, 153.806,67 eurotan. Aurkeztuakoen artean zozketa azaroaren 9an egingo da, 19:00etan, kultur etxean.

agirresarobe+elizondo arkitekura

Obra eta proiektuak
obra berrien proiektuak • informak • erreformak eta erregulazioak • obra direkzioa • gremio koordinakuntza

borja agirresarobe lopedegi tel.: 635 731 722

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKAK
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

AIAKO LEIHOA

Setati, temoso... (II)

Urte hartan elur asko egin zuen eta, normalean ez bezala, oilagor ugari ibili zen pasean. Hori Euskadin bakarrik gertatzen, eta ez beste inon. Eta zein izan ziren lehenak kexatzen, bada kanpoan akotatua ordaindu eta hemen ehizatzen ez dakiten ehiztariak.

Kanpoan ehizatu nahi dutenek ehiza dezatela, eta hemengoak bakean utz ditzatela, zeren hemengo inor ez da joan hara kontuak eskatzera hemen izan ez denean. Eta han nahiz elurra egin, nahiz egunez izan, nola arratsaldez ala gauez egiten da oilagorretan, baina, noski, han ehizarik ez dagoenean askok, eta kontuz! ez dut denek esaten, ezin dute eraman hemen horrelakorik gertatzea eta segituan hasi ziren egunka-

rietan eta interneteko foroetan kexatzen. Behin baino gehiagotan irakurri nuen hemen ehizean ari zirenak hiltzaile batzuk zirela zioten komentarioak. Jakina, hemen asko botatzen badira hiltzaileak dira, baina kanpoan asteburua pasa eta 27 edo 30 oilagorrekin etortzen den hura, kaleko hizkeran esanda, jaun eta jabe da.

Kexa horiekikusirik, Foru-

Aldundiak ehiza galarazi egin zuen elurra zegoela aitzakiazat hartuta. Gehienok amen egin genuen

Aldundiak ehiza galarazi egin zuen elurra zegoela aitzakiazat hartuz. Gehienok amen egin genuen, denok baitakigu elurretan ez dagoela ehizatzerik, baina zer gertatu zen elurra lurmenduta zegoen lekuetan, bada han ere ehizatzea galarazi zutela. Niri ondo iruditu zitzaidan elurra zegoenean ehiza debekatzea, hori urtero horrela izan da eta Aldizkari Ofizialean eto-

Baina elurrik ez dagoen lekuan ehiza debekatzea... hori hanka sartze larria iruditzen zait

ri zen, aurten ere etorri den bezala, eta oilagorrek ehizatzeke ere kupoa jarria dago: gehienez hiru oilagor ehiztari bakoitzeko eta eguneko, eta legez kanpo dabilena zigortu dezatela, baina elurrik ez dagoen lekuan ehiza debekatzea eta izan zen hegazti pilarekin, gainera, hori hanka sartze larria iruditzen zait.

Aurten kontsolatzeko 15 egun gehiago eman dizkigute ehizean aritzeko, ez dakit oparizat ala iraintzat hartu zeren hegaztiak etorri zirenean debekatu eta orain zeinek ziurtatuko digu 15 egun horietan lehengo urtean adina etorriko dela...

JON ANDER AZPIROZ

TXOKOAK ETA JENDEA



Ikasle asko erlijio klaseetan

Azken urteetan kristau ikasbidea lantzeko eta lehen jaunartzerako prestatzeko, hainbat ume elkartzen dira astero-astero Unai Manterola apaizaren eta Arantxa, Maria Angeles eta Itziar katekisten inguruan. Aurten berrogei haur baino gehiago dituzte klase horietan eta hemen ditugu gehienak, kaskoan bizi direnak eta Andatzakoak, klasera sartu aurretik.



Dantzariak ikastetxe berriaren logoa zabaldu zuten ekitaldiko unea.

KARKARA

Ametsak errealitate bihurtzen omen dira, Herri Ikastolarenak ere bai

Eraikin hau laugarrena du Orioko Herri Ikastolak, gaur egun dituen eta datozen urteetan izan ditzakeen beharrak asetzeko adina, printzipioz.

38 urtetako ibilbidean oztopo askori egin behar izan die aurre eta leku falta izan da, agian, ikasleek, irakasleek eta gurasoek gehien nabaritu dutena. Gustura egoteko moduan dira orain.

MIKEL ARANZABAL

DBHrako, eraikin berria du Orioko Herri Ikastolak eta etengabe hobetzen jarraitzeko nahian ikaragarritzko pausoa eman du horrela.

2001ean hasi eta 8 urtez garatzen joan den proiektua izan da DBHko zentroa eta urriaren 25ean, igandearekin, ireki zuten jendeak ikusteko.

Eraikinaren forma kurbatuak buruhauste bat baino gehiago ekarri die teknika-

riei, baina, hala ere, lortu dute behar eta nahi zen moduko egitura egitea. Ez da edonolako, gainera; teknologia berriek praktikotasunarekin eta ekologiarekin bat egin baitute, eskolak emateko leku ezin hobeasortuz. Behininau-

guratuta, azken ukituak eman eta baimenak lortu behar dira, baina azarorako erabiltzen hasteko moduan izatea espero dute ikastolakoek.

Orioko Ikastolaren ametsa erabat gauzatu dela dirudi, lan asko egin ondoren.

Praktikotasuna eta ekologia, biak bat

Eraikinak 685m²ko sotoa du lur azpian, 496m²ko behe solairua, 241m²ko aterpea eta 624 m²ko beste hiru solairu, ikasgeletarako. Jolastokiarekin batuta, 1.625 m²ko azalera hartzen du eta, guztira, 4.182m²ko azalera erabilgarria dauka.

Handiegia edo txikiegia izan, 12-16 urte bitarteko ikasleentzat dela kontuan izanda, ikasteko praktikotasuna eta ekologia horrela uztartzea da garrantzitsuena; batetik, oso urte nahasiak izaten direlako DBHkoak, izaera garatzen hasten baitira eta, bestetik, orduan jaso behar dituztelako bizitza osoan defendatuko dituzten balioak.

Hori esanda, ezagutu ditzagun eraikinaren ezaugarriak eta horrelakoa izatearren arrazoiak:

ARETOA

Lurrazpiko solairuan 200 pertsonentzako aretoa egin dute. Agenda 21a osatu zenean, Orion erabilera anitzetarako espazio baten beharra antzeman zen eta Ikastolak bertan egitea erabaki zuen. Antzerkiak, kontzertuak, hitzaldiak, erakusketak... denetik egin daiteke eta Ikastolak herriaren esku utziko du, behar duenak erabili dezan. Aldagelak eta unean uneko emanaldietarako almazena ere badu aretoak, ikusleentzako komunaz gain.

Eskolan erabiltzen diren materialak gordetzeko sotoak, instalazio gelak eta langileentzako aldagelak ere lurrazpiko solairu horretan daude.

SARRERA

Beheko solairuan dago eraikuntzarako sarrera nagusia, errio aldetik. Sarrera arkupe-tikegiten da eta, ondoan, aretorako sarbide independentea egin da, Ikastola itxita dagoela ere sartu ahal izateko. Kanpoan, bi komun publi-

ko ere baditu, ikastorduez kanpo ere irekita egongo direnak.

Atetiksartzean idazkaritza da ikusten den lehen gauza, eta harreran bertan bi bide daude. Ezkerretara, ikasgeletara igotzeko edo aretorajais-teko eskailera eta igogailua daude eta, eskubian, pasillo luze bat. Pasillo horretan daude fotokopiadora gela, artxi-boa, irakasle gela, zuzendaritzako 3 bulego, bilera gela, instalazio gela eta komunak; irakasleenak eta ikasleenak banatuta. Pasilloaren bukaeran, eskailera daude berriz, horiek gora egiteko bakarrik, beheko eskailera aretoko emergentzia irteera baita.

IKASGELAK

Gainontzeko hiru solairuek egitura berdina dute: zarpina gela hego-mendebalderantz eta barnebidetara, eskailera eta komunak ipar ekialderantz.

Lehenengo solairuan, DBH 1. eta 2. mailarako bina gela daude, 2 gela mintegientzako eta laguntza gela bat.

Bigarren solairuan, DBH 3. eta 4. mailarako bina gela, informatika gela eta liburutegi-ikasgela.

Hirugarren solairuan, musika, plastika, informatika eta teknologia gelak, almazena eta laborategia daude.

EKOLOGIA

Eskailera goiko terrazara eramaten du eta han urez betetako gaina dago, piszina dirudiena. Euri ura jaso eta edateko ez den beste edozein gauzetarako erabiliko da ur hori, esaterako, komunitako zisternatarako edota mangelarako.

Atikoan, baita ere, 2 eguzki-plaka termiko jarri dira aldageletako eta harrasketako ur beroa eguzkiaren bitartez berotzeko. Pentsatuta dute 10 plaka fotoboltaiko ipintzea, eguzkiaren bitartez



argindarra sortzeko.

Horrek guztiak hasieran inbertsio handia suposatzen duen arren, luzera dirua aurrezteaz gain, ukitu pedagogikoa eman nahi zaio eraikinari berari neurri horiekin, Ikastolak energia berriztagarriak erabiliz, ekologiaren alde duen politika adieraziz.

ISILA, EPELA ETA ARGIA

Isiltasunak, tenperatura goxoa eta argizatze naturalak ikasteko erosotasunean zenbaterako garrantzia duen ikusirik, bereziki zaindu dira etxe egiterakoan.

Akustikoki gela bakoitza besteetatik eta barnebidetik isolatzeko, hormak bi adreilu



KARKARA


geruzekin egin dira eta, bien artean, isolatzailea jarri da. Gainera, zoru mugikorra jarri da eta, sabaian plaka akustiko aldagarriak ipini dira.

Tenperatura aldetik, zoru edo pareta guztiak isolatuta daude, baita kanpoarekin lotuta daudenak ere.

Kalefakzioa ur berokoa da

eta solairu bakoitzean kondentsaziozko berogailu bana dago, energia aurrezteko sistemarekin.

Ikasgelak hego-mendebalderutz kokatuta egotean, argizatze naturala erabatekoa da ia; are gehiago, dituzten leiho handiak kontuan izanda.



JOSEBA MANTEROLA

KOMUNIKAZIO SAREA

Telekomunikazio aldetik gela bakoitzean datu eta ahotsetako bi puntu ditu, proiektore bat eta informatikako bigela prestatu dira.

Argindarrerako solairu bakoitzean koadro bat dago, eta argi guztiak kontsumo baxukoak dira.

SEGURTASUNA

Suteen aurkarako prestatu dago, solairu bakoitzeko bi mangera, emergentziako iluminazioa, alarma sistema, pultadore eta guzti, eta esku-ko su-itxalgailuak ere nonahi aurki daitezke. Alde banako eskailereklarrialdietarako irteera funtzioa ere badute.

ZINTA MOZTU ETA GERO, ETXE BERRIKO ATEAK ZABALDU ZITUZTEN HERRITARRENTZAT

Ikastolaren etxe berriak lagun mordoa bildu zuen

Ekitaldi xumea bezain hunkigarria izan zen inauguraziokoa eta ezerk ezingo zuen bertan bildutako jendearen irribarrea aurpegietatik kendu. Ikastolaren egun handia izan zen.

Asko dira Ikastolak etxe berriagatik egin dituen ospakizun ekitaldiak: Sanpedroetako triatloia, Benitoren kontzertua, herri kirol festa, Aukeran dantza taldearen emanaldia, larunbateko estropada... eta oso jendetsuak izan dira denak, herriak Ikastolaren proiektuan duen konfiantzaren erakusgarri.

Baina urriaren 25ean, igandearekin, ospatu zena izan zen, dudarik gabe, egunik handiena: DBHrako ikastetxe berriaren inaugurazio eguna.

IKASTOLAN EKITALDIA

11:00etan puntuari hasi zen, Ikastolako aretoan, ekitaldia. 38 urteko ibilbidean aritu diren hainbat pertsona nabarmen, herriko talde eragileak eta politikoak izan ziren gonbidatuta eta areto berria bete egin zen. Ikastolaren historiari eta filosofiari errepaso eman zitzaion bertan, hitzaldi eta bideoen bidez.

Gero, eraikinaren bisita gidatua etorri zen, jende horrentzat bakarrik.

12:00etan hasi zen, ordea, ekitaldi hunkigarriena. Etxe berriaren inguruan, herritar mordoa bildu zen eta hainbat ikuskizun izan ziren.

Harribil dantza taldea aritu zen lehenengo eta, amaitzean, etxe berriaren logotipoa zabaldu zuten dantzariak, eraikinaren aurrean. Garbi geratzen zen mezua, ametsa zeneko zirriborroa egiazko bihurtu dela irudikatuz.



Bazkaritan 400 lagun elkartu ziren.

KARKARA

Jokin Izagirrek hartu zuen hitza lehenengo eta, Orioko Ikastolako lehendakari den aldetik, Ikastolen publikotasuna aldarrikatu zuen, giza eskubide unibertsalean oinarrituta. Jon Redondok hartu zuen hitza gero, eta txikitan Ikastolan ikasi zuela gogora-

razi zuen. Eraikinaz baino gehiago hezkuntzan jaso beharreko balioez mintzatu zen alkatea, Ikastolak gai hori ondo lantzen duela esanaz. Koldo Tellitu Ikastolen elkarreko lehendakaria hezkuntza alternatiboen alde jardun zen hizketan.

Ekitaldia bukatzeko, agurra dantzatu zuten Ander Errastik eta Maitane Mugikak; Egoitz Eizagirrek bertsoa bota zuen, zinta moztu eta etxe berriko atekitaroten air zen jendearentzat zabaldu ziren. Kanpoan, bitartean, hamaiketako ederra eman zuten eta Botapa batukada taldearen erritmoek giroa alaitzen jarraitu zuten.

Mila esker guztioi, bihotz-bihotzez

Lortu dugu guztiok nahi genuen hura, boluntario askoren arteko batura. Hamaika herritarren gogo ta lotura, Ikastola barruko elkarlan kultura.

Pozgarria izan da gure abentura. Ikusgarria zuen lan eta ardura. Jende guztia pozik, gu denok gustura. Mila esker guztioi, zuekin mundura!

ORIOKO HERRI IKASTOLA

FRONTOIAN BAZKARIA

Egun berezi hori bukatzeko, herri bazkaria egin zen frontoian, 14:30ean hasita eta aseptu arte jan eta edateko aukera izan zuten.

Laurehun lagun bildu ziren Ikastolari babesa emateko; 155 haur eta 245 heldu. Haur horietako asko, eraikin berria erabiliko duten lehenak izango dira.

ZENBAKITAN

LEHEN IKASLEAK
24

1971n sortu zen Orioko ikastola eta lehenengo eskolak elizako saloian eman ziren. Sagrario Olaetxea lizartzarra izan zen lehen irakaslea eta 24 ikaslerekin hasi zen. 1985ean utzi zuen Sagrariok Orioko Ikastola.

EGUNGO IKASLEAK
591

Urtez urte, Orioko Herri Ikastolako ikasle kopurua handitzen joan da, gaur egun dituen 591ra arte.

IKASLE OHIAK
790

Sortu zenetik hezkuntza eredu ofizialari alternatiba izan da Ikastola. Eredu horrek babes ikaragarria du herrian eta horren adierazle da iaz arte bertatik 790 ikasle pasa izana. Orain daudenekin gehituta 1.381 dira guztira.

LANGILEAK
56

Orioko Herri Ikastola handituz jon den heinean, langile kopuruak ere gora egin du. Gaur egun 56 langile aritzen dira egunero; horietako 49, irakasleak.

KILOMETROAK
120.000

2004an ospatu zen Kilometroak Orion, *Itsaso zahar, olatu berri* lelopean. Ikastolaren aldeko jaialdi hura Orioko eta Zarautzen artean antolatuta zen eta 120.000 inguru lagun bildu zituen. Aurten Donostian egin den arte, Oriokoa izan da jende gehien bildu duena.

JOKIN IZAGIRRE | ORIOKO HERRI IKASTOLAKO LEHENDAKARIA

“Ikastola bezala, ikastetxe berria herriarentzat egin da”

Ikastolaren eraikin berriak herriari zer eskainiko dion jakin nahi izan dugu eta, horretarako, Jokin Izagirrerekin egon gara.

Kilometroak izan zen eraikina egiteko lehen pausoa, ezta?

Lehenago ere ikusten zen anpliatu beharra. 2001ean egin ziren estimazioen arabera, hamarkada hau bukatu baino lehenago txiki geratuko ziren orain arteko baldintzak eta, hala gertatu da, urteak daramatzagu kabitu ezinik.

Hasiera hartan, kiroldegia Ikastolarentzat behar zuen lursailean eraiki zen, beraz, arau-subsidiarioetan, orain eraiki dugun eremua hartzea adostu zen Udalarekin.

Horretara iritsita, dirua behar genuen eta Kilometroak izan zen horretarako lehen pausoa. Baliteke jendeak orduan izatea, lehenengoz, eraikin berriaren berri, baina 8 urteko bide luzea izan da.

Kilometroakekez du eraikin hori egiteko adina ematen. Nondik atera da dirua?

Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzatarako deialdia egiten du hiru urtetik behin-edo eta, azkenekoan, sei hilabeterenagatik kanpoan geratu gara. Horregatik genuen presa bukatzeko. Orain ez dago beste deialdirik, baina, gobernuak aldatu bada ere, izatea espero dugu, sozialistak lehen ere hezkuntzako arduradun zirenean izaten baitziren. Aidean gaude, beraz.

Horrez gain, Udalak milioi bat euro pasatxorekin lagundu digu eta gurasoak ere ahalgin handia egiten ari dira hileroko kuotan eraikinagatik gehigarria ordainduz, eta Iturbide kaleko Ikastolaren lokalak ere saldu behar izan genituen.



Jokin Izagirre da gaur egun Ikastolako lehendakaria.

KARKARA

Gurasoak esfortzu handia egiten ari dira hileroko kuotan eraikinagatik gehigarria ordainduz

Zer eskainiko dio eraikin honek Ikastolari?

Aldaketak etengabeak dira Ikastolan. Ez eraikin berriagatik bakarrik, zerbitzua hobetzeko beharregatik baizik.

DBH eraikuntzaz aldatuta, leku gehiago izango dugu lehenengo instalazioetan. Esaterako, dagoeneko bigarren jangela jarri da martxan eta, horrela, haurrek otorduaren behar duten lasaitasuna dute, zaintza berezia eta nerabeek *self-service* moduko zerbaitekin aukeratzeko eskubidea eta autonomia dute.

Eta herriari?

Beti eskaini dion berdina. Ikastolak bere filosofian ez du inoiz izan jabetza asmorik, ez da izan erakunde patrimonialista bat, behin ere ez. Ikastola herritik sortu zen, Orioko herriak sortu zuen eta herriari zerbitzu ematea du helburu, kalitatezko hezkuntza eredu alternatibo bat emanez.

Gainera, Orioko Ikastola zenbait arlotan aintzindari da, besteak beste, Ikasys proiektuan parte zuzena izan du sorreran, eta aplikazioan ikastetxe pilotoa izan da.

Zerbitzu publiko kontzeptu hori da inspiratzen gaituena. Alde horretatik, guk dugun guztia herriarentzat da. Gure instalazioak ez daude itxita eta edonork, edozein momentutan, ahal den neurrian, jakina, erabili ditzake. Etxe berria ere filosofia berekin jaiotzen da: Ikastola bezala, herriarena da.

ADARRETATIK HELDUTA

Izan pirata!

Beatles-en *Help!* kanta mitikoa (eta, noski, atzo internetetik jaitsi nuena) irrati-kasetean dut entzungai eta... kasualitatea! Laguntza pixka bat eskertuko nuke iritzi artikuluko osatzearen, ideiak aspaldian nahiko geldo baitauek; ikasturtea hasi zenetik. Lagun asko irrikitan daude, lehenago eginiko iritziaren antzera polemika sortuko duen zerbait idatziko dudalakoan; besteak, lehenagokoa arekin ez oso gustura, *Hi oaingon ezai pasa!* eta nik... nik ez dakit argi utzi nuen OKK-k arrazoi duela eta asmatu zuela izena aukeratzeko. Herri hau kaka bat da, eta ez dut uste orduetik ezer aldatu denik. Oraindik ere Orio kaka bat da, eta ez edonolako kaka bat, gaztetxerik gabeko kaka bat.

Baina ez da ez gaztetxeraren kontua gaurkoan kritikatu nahi dudana, ezta herri honi darion kiratsa ere.

Berri Txarrak-ek, inoiz izan den euskal rock talde entzutetsuenak, kaleratu berri du *Payola*, seigarren diskoa, eta merkatura irten zen lehenengo astean, Espainiako salduenetariko bat izan zen. Tituluak eta diskak orokorrean gaur egun musikagintzan dagoen saldukeriari egiten dio kritika eta hori da, hain zuzen, nik hona ekarri nahi dudana gutxi gorabehera.

Bada SGAE (Sociedad General de Autores y Editores) izeneko elkarte bat Espai-



EÑAUT MARTÍ
UNDERGROUND MUSIKARIA

Baina ez da ez gaztetxeraren kontua gaurkoan kritikatu nahi dudana, ezta herri honi darion kiratsa ere

Jaitsi, kopiatu, elkarbanatu... ahal duzuen musika, edo bestelako espresio artistiko mota guztiak

nian (beste lekuetan beste izen bat duena), diskoen, musikariaren, abestiaren... eskubideak zehazten eta bermatzen dituen. Horregatik,

elkarte horrek, musikariaren irabazien ehuneko zehatz bat eskuratzen du.

Bada, ordea, horren aurkako mugimendua, bai Euskal Herrian eta baita munduan ere: *Underground* mugimendua.

Duela bi aste Galizian jotzen izan berri naiz, eta ez dut dirurik jaso (soilik sarreren dirua; 3 euro baino gutxiago kontzertuko) eta gutxiago jaso du horregatik SGAEk. Baina diruak edonor aberastu dezakeena baino gehiago aberastu nau kulturalki eta pertsonalki hango egonaldiak. Eta hortan datza *Undergrounda*, hartu-eman kulturalan, hartu-eman kultural aske eta doakoan; kultura librea baita herriaren oinarria eta bizitza, kultura libre eker eskatu gabe asko ematen duelako.

Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik jaitsi, kopiatu, elkarbanatu... ahal duzuen musika, edo bestelako espresio artistiko mota guztiak. Adierazpenak inoiz ez baitu inor aberasteko iturria izan behar. Horrela, eta ez beste modura, haziko baigara pertsona eta herri bezala.

Eta lasai, Bisbalek bestela ere izango du eta Marbellan txaleta, kontzertuak sarrerako 60 euro kobratuz.

Beraz badakizue, izan pirata!

Eta Bisbal, ez da ezer pertsonala, baina hiztegiak dioten bezala: *You'll never walk alone!*

NIRE HONETAN

Begirada esanguratsua

Gogoan al duzue Burt Lancasterrek nola estutzen zituen begi zulatzaile haiek zigarroari kea tiraka ateratzen zion bitartean? Greta Garboren pose limurtzailea, zigarroa margotutako ezpainetara hurbiltzen zuenean, begirada esanguratsua guregana bidaltzen ari zela?

Gaur egun, ukitu-ezinezko baztertuak lantokiko atarian elkartzen ditugu, droga zainetan sartu beharrean. Haien zat ez da azukrez egindako gozokiak edota kolesterolez betetako opilak erosteko makina duen gelarik. Ez. Begibistan jarri ditugu, gizartearen legenardun moduan: aurreko planoan, hotzak jota, bekatuaren protagonistak.

Aurreikusten al duzue ongizatea hain estimatua duen gizartea datorren urtean leku publikoetan erretzea debekatzen den irudi panoramikoak? Hautsontzi egokiak bost metrotik bost metrotara atari eta kale guztietan?

Hara pelikula: pozoiaz betetako paperezko makarroiak nonahi; zigarro-punta putzuak hona eta hara, haizeak eramanda. Eta haur txiki batek punta horietako bat ahoan duela, estututako begi esanguratsua, nikotinaren mingotsak malkoz beteta.

The end.

PAT COWIE

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf: 805 732 913
Fax: 943 020 213
ventanassagasti@euskalnet.net
Bizkaia kalea, 20-1 B
20800 Zarautz

kutxa

MOILA BAZTERRETIK

Adiorik ez, gero arte



AIORA LARRAÑAGA

O rri zuriaren aurrean jarri naiz iritzi artikululu hau idazteko prest eta, gutxitan bezala, ez dakit nola hasi. 2008ko udan Patxik hots egin eta moila bazterretik atalean idazteko proposatu zidanean, herriko gaien

inguruan idazteko aukera polita izango zela iruditu zitzaidan. Askotan mementoa iristen denean, ordea, pertsonoi kostatu egiten zaigu benetan pentsatzen duguna jendaurrean adieraztea, gertuko gaiez ari garenean batik bat.

Buruari bueltak ematen hasi naiz, zeri buruz jardun naitekeen pentsatuz; astelehena da eta atzo inauguratu zuten Ikastolaren eraikin berriaren inguruan jardutea bururatu zait hasiera batean. Baina ondo pentsatu dut, *ez nuke nahi inork gaizki hartzerik*, esan diot nire buruari. Izan ere, Orion bada gai bat politika bera baino kontu gehiagorekin jorratu behar dena, ikastetxeena, hain zuzen ere.

Aurreko gaia guztiz baz-

tertu ondoren, Iñaki Gurrutxaga bertsolaria zorionteza ere etorri zait burura, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako final erdietarako sailkatzea lortu baitu. Hala ere... ez da niretzat gairik aproposena, ezer gutxi baitakit nik bertsolaritzari buruz. Beraz, hanka sartzeren bat egin baino lehen, hobe buruari beste buelta batzuk ematea.

Gutziz etsita artikulua bukatzeko zenbat hitz gertzen zaizkidan begiratu eta konturatu naiz, amaitzen hastea komeni dela. Ez zait gustatzen niri adio esatea, nahia go izaten dut gero arte alai batekin agurtzea. Beraz, hemendik aurrera txoko honetan elkarren berri jakingo ez dugunez, eskerrak eman nahi dizkiet orain arte nire iritzi artikulua irakurri dituz-

Ikastolaren eraikin berriaren inguruan jardutea bururatu zait hasiera batean, baina Orion bada gai bat politika bera baino kontu gehiagorekin jorratu behar dena, ikastetxeena hain zuzen ere

ten guztiei.

KARKARAKOEI ere mila esker, nahi izan dudana arte nire burutapen eta iritziak kontatzeko lekutxo hau utzi dida-telako.

TANATORIO ZARAUZ

 EUROFUNERARIAS TALDEA
Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiaroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Korciak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
 Tel. 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41
 e-mail: hanesp00@hanespil.net

AMILIBIA
 eNTZioLAK, S. L.

kirol partuetan proiektu eta instalazioak
 gai malaka lehiaketarako arrazun-ontziak

Olasnagaregia auzoa, 52
 34 943 83 08 29
 faxa 34 943 89 40 81
 amilibia@amilibia.com
 www.amilibia.com

ITZALA
kartetas jokatzeko aproposak
 tel. 943 83 12 51

ASADOR XIXARIO
 Paseo Guarden Kalea, 2
 Tel. 943 830019 - ORIO

Orioko Herri Ikastola
 Guraso Kooperatiba
 ABESLARI KALEA, 8
 TEL: 943 83 47 04
 FAX: 943 13 09 38
 orio@ikastola.net
 www.oriokoikastola.net

LURDES
 ARKINGEGIA

 Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Dorronoro Denda
 196etik zure ondoan
AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN
 Tel 943 83 09 37



Zaragueta Eskola Orio

 telefonoa: 943 89 40 52
 e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

URDANE TAKO SAKMARTINAK

AZAROK

8

IGANDEA

ZAHARREN eguna

Goizeko 11:30etan: MEZA NAGUSIA.

Eguerdiko 12:30etan: Pala Txapelketako Finala eta jarraian gazteen arteko eskuz binakako pelota partida, Jarraian Izeta III. eta Izeta IV.enaren eskutik herri kirolak, hau dena Telleria eta Beñat Lizaso bertsolari eta Astiasaran trikitilarien laguntzarekin.

Ondoren zaharrak gosetzean Indamendi Elkartean bazkari ederra bertsolari eta trikitilarekin batera.

Bazkal ostean bertso saioa eta trikiti saioa izango dugu zaharrentzat eta elkartera azaltzen direnentzat.

Arratsaldeko 18:30ak aldera guztiok bertsoak entzun eta trikitixa dantzatzera auzoko kalejirara! Tirripititaun tirripititaun,...

Gaueko 22:30ak aldera Astiasaran trikitilarekin erromeri latza gure Ximor tabernan.

AZAROK

11

ASTEAZKENA

SAN MARTIN eguna

Goizeko 11:30etan MEZA NAGUSIA.

Eguerdiko 12:00-ak aldean auzoko herri kirolak: Animatzen diren guztien artean taldeak osatu eta elkarren aurka honako euskal kirolak jokatu:

- Lokots bilketa, saku lasterketa, trontza, saka tira ...
- Ondoren toka eta txinga lehiaketa.

Hauk ikustearekin batera tortila patata lehiaketa ere izango da eta epaileak daztatu ostean guztioi banatuko zaie pintxo bana.

Oharra: Algara batzuk egin eta ondo pasa nahi duenak zatozte eta gozatu izerdi pixkat ateraz. Animo!!!

Hau guztia ostean gure San Martintxo txerritxo bixkomaren harrapaketa. Ea nor den gure txerritxo Bietnamiarra harrapatzea lortzen duen karrikalaria, berarentzat izango baita gure txerritxo preziatua. Nola ez guztia Aratz eta Erlantz trikitilarekin animatuta!

Afal ostean berriz erromeria izango dugu Ximor-en.

AZAROK

12

OSTEGUNA

OILASKO BILTZE eguna

Goizeko 7:00-etan diana, itxaperoekin esnatu eta han goaz basarri basarri oilasko biltzera Izer eta Narbaiza-rekin.

Gaueko 21:00etan bildutako oilaskoekin afaria Indamendi elkartean bertako jendea asetu arte.

Afal ondoren kukuruku-ka hasi baino lehen Izer eta Narbaiza-rekin erromerira guztiok!

AZAROK

13

OSTIRALA

Gaueko 22:30-etan Mus txapelketa azkarra Indamendi elkartean.

23:30etatik aurrera gure Ximor taberna irekita egongo da.

AZAROK

14

LARUNBATA

Arratsaldeko 16:00etan Korri eta Xalxo pailazoaren eskutik "Sketx ederrera" saioa eskainiko dute ume eta baita ume zaharrentzat ere. Buruhandiak ere azaltzekoak omen dira!

Ondoren denentzat gozokiak eta txokolata gozoa bizkotxoekin tripak berotze aldera.

Illuntzean, jendea gosetzearekin batera, 21:00etan frontoian Bertso Afaria, bertan izango baititugu Lizaso, Paia eta Mendiluze bertsolariak. Afaltzeko Sopa bero beroa, Betizua burduntzian erneta, postrea, kafea eta kopa izango dira. Txartelak Urdanetako Izarra, Begoña eta Izeta tabernetan eta Zarautzen aldiz: Eroskiko Arralde tabernan eta Azken Portuko Otxarneta Harategian.

BERTSO AFARIA

Urdanetako frontoian
Betizua jan eta Txotx eginez.

25 €

Tripak bete bete egin eta bertso saio ederra entzun ostean. Izer eta Alabierrek sekulako martxa jarniko dute frontoian bertan.

Oharra: Gaueko 23:30etatik aurrera gure taberna leiola "DISKO-Ximor" bilakatuko zaigu.

Goizaldean: Kalimotxoak asentatzeko Baratxuri sopa ere izango dugu.

AZAROK

15

IGANDEA

Goizeko 11:30etan MEZA NAGUSIA.

Jarraian San Martin pelota txapelketako binakako finala.

Ondoren Mugerza eta Etxebeste aizkolari eta Izeta II. harri jasotzailearen eskutik herri kirol ikuskizuna Ansoñegi eta Larrañaga trikitilarekin animatuz.

Segidan pelota txapelketako inabazleak saritu eta San Martin jaietako afariak zozketatuko dira. "Agian zeu izan zintezke".

Arratsaldeko 17:00-etan Idi Dema erakustaldia: Izetako Sebastianen idi pareta eta Izetako Hodeiren idi parearen eskutik.

Ondoren ahari jokoak.

Illuntzean Ximorren epel erromeria Ansoñegi eta Larrañagarekin.

Afal ondoren ere erromeriak jarraituko du hankak nekatu arte.

Eta nola ez, Festei amaiera emateko: Patata Dantza txapelketa eta jarraian traka zaratatsua!!!!!!!



Sarituari bisitan

Francoren garaian ba omen zen *Plus Ultra* izeneko sari bat. Ume eredarriari ematen zitzairen eta Iñake Irastorzak eskuratu zuen berea, nerabea zela, familiaren kargu egin zelako; ama oso gaixo zuenean, lehendabizi, eta hil zenean, gero.

Argazkia, Itxaspe ondoan ateratakoa dela esan digu Joxe Manuel Urkizuk. Iñakerekin daudenak eskolatik atera

eta bisitan argazkia ateratzera joanak zirenak dira: garai hartan halakoak egin behar izaten baitziren. Argazkia, 1967koa da. Iñakek 12 urte zituela jaso zuen eta saria.

Hauek dira agertzen direnak goiko ezker aldetik hasita: M. Lertxundi, ezezaguna, A. Flores, ezezaguna, J. A. Iturain, J. I. Gurrutxaga, V. Gonzalez, E. Escudero, A. Avila, C. Caballero, C. Fernandez,

J. M. Miralles, J. A. Garmendia, J. I. Uranga, J. Egibar, J. M. Urkizu, P. Casado, I. Irastorza –Iñakeren anaia–, A. Esnal, E. Caballero, Iñake eta, aurrean hartuta, R. Irastorza.

Jakin dugunez, piper egin zuen bat edo beste ba omen da, argazkian agertu behar eta ez dagoena.

ARGAZKIA: ARTXIBOA
INFORMAZIOA: J. M. URKIZU

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

ZAPATA KONPONKETAK

LANORDUAK: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00
Larunbeteak: 09:00 - 13:00
Herriko errepidea, Orre

iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzeka asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORRE** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

KRITIKA

Ane Iगतibuzu *Zorion perfektua* filmako 10. eszenan.

ZINEMALDIA

Zorion perfektua: koska bat gorago

Aurtengo maiatzean Anjel Lertxundi KARKARAKO elkarrizketatzera joan ginenean (santpedroetako zenbakian argitaratu zen gero elkarrizketa hori), Bilbotik etorri berria harrapatu genuen; *Zorion perfektua* filmaren pase pribatua ikustetik zetorren eta, orduan esan zigunez, txukun, oso txukun egindako lana iruditu zitzaion, euskaraz egindako filmen artean, one-netakoa. Irailean ikusi nuen nik, Donostiako zinemaldiko aurkezpen ofizialean eta, oraingoan ere, ezin diot arra-

zozirik kendu Anjeli: euskarazko zinemagintzak daukan ibilbide laburrean gutxi dira *Zorion perfektuaren* mailara iristen diren filmak. -*Tasun* ugari ditu (ondo jositako gidoia, denboran jauziak ematen dituenena, baina erraz segitzen dena; Euskal Herriko orain dela 25 urteko egoera ederki jasotzen du; euskara naturalez egindako elkarrizketak ditu, sinesgarriak...) eta -*keria* gutxi (Ane Iगतiburuk ondo egiten badu ere, beste aktore batzuen lana ez da maila berekoa; soinuaren kalita-

tea kaskarra da momentu batzuetan...).

Oro har, esango nuke Jabi Elortegi zuzendariak, film honen bidez, koska bat igo duela euskal zinemaren kalitate maila eta, aurrerantzean egingo diren lanetarako, erreferentzia ezinbesteko bihurtu dela dagoeneko.

JABIER ZABALETA

IKASLEAK IDAZLE



IMANOL AIESTARAN |

DBH 4. MAILA

Ikastola berria

Aspaldidanik hasi ginen nabaritzen ikastola berri bat beharko genuela. Urteak pasatzen zirene eta oraindik lehen bezala jarraitzen genuen, lehengo urtean ikastolako eraikin berria egiten hasi zirene arte.

Orain noiz bukatuko zain gaude, baina, esaten digutenez, urtarrilean han ikasten izango gara. Hala ere, inagurazioa urrian izango da eta ospatzeko egun hori baino lehen ere beste ekitaldi batzuk izan dira eta izango dira. Horietako batzuk, irailaren 19ko eskubaloi partidak, 26ko futbol partida, herri kirolean errekorra, eta Aukeran dantza taldearen emanaldia dira.

Horrenbestez, iruditzen zait eraikin berriak merezi dituen bezalako ekitaldiak prestatu direla eta, gainera, azken urteetan falta zaigun lasaitasuna ere ekarriko digula.

ODITZ
 Gure liburuak
 gurekin zurekin
 tel. 943 83 00 89

PERTSIANAK
 A K O M A Z
 Anuntio, PVC
 Venezianak
 Motorrak...
 Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

INDO
 Garraio frigorifikoa
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA
 Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

INKESTA

?

Herriko jaiak santuaren egunaren bezperan hasten dira, baina aurten larunbatean tokatzen da San Nikolas bezpera. Gazteek eta tabernariak ostirala ere festa egun izatea nahi dute.

ZER IRUDITUKO LITZAIZUKE SANIKOLASAK ABENDUAREN LAUAN HASTEAN, AURTEN?

Erantzun iezaiozu galderari www.karkara.com webgunean eta emaitza azaroaren 27an argitaratuko dugu, 269. Karkaran.

OSPAKIZUNA



Uthe Galiza tour '09

A zer sorpresa eman diguna Uthe musika talde oriotarrak. Orioko gazteak hemen haien musika entzuteko irrikaz eta, ezer esan gabe, hara non joan zaizkigun Galiziaraino jotzera, lehen kontzertua etxean eman beharrean.

Ea sanikolasetan-edo, zer nolako artea duten ikusteko aukerarik badugun.

Bide batez, urte askoan Eñauti -argazkian hortzak estutzen ari dena-, azaroaren 4an 19 urte egingo baititu.

ZORIONAK!



Orioko Udalbatzarrari

Ohiko Udalbatzarra izan arren, ez-ohiko egoera bizi izan zen urriaren 27ko bilkuran.

Sei gai ziren bozkatzekoak eta, hala ere, hiru mozio gehiago ere erabaki zituzten.

Ez zen hori izan plenoko gertaera arraro bakarra, izan ere, gai asko aho batez onartu zituzten eta, horrela ez zenean, lasai eta edukazioz hitz egin zuten saio guztian.

Bukaeran, gainera, zaborra gaika eta atez ate biltzearen aldeko mozioa irakurri zen eta alkateak lasai jardun zuen bertaratutakoekin hizketan.

Politikan, errespetuaren bidea ezagutu dutela dirudi; zorionak.

Igo zaitetz haize berrietara!

Galerna I

943890416-677149334
galerna1orio@hotmail.com

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txakorra, txoritza, kraketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 83 59 00

KOLON TXIKI
sustategia jabeak

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

"JUAN LARRAZPU" ERAIKUNTZAK, S.L.
(Jan. An. U)

Baserietako igeltseritza eta agurzio estibularien aditua

Exteen berruntzek:

- txakak
- txoritza
- txakak
- txakak

Tel. 945 718 696 (Jan. An. U) Estropalea, 30-38/Orio

OROIMENAREN KUTXA



Mollarrin ontziratzen zuten Andazarratik ekarritako minerala Ingalaterrara eramateko.

PAISAJES ESPAÑOLES SA

JAIOTAKOAK

- Markel Peña Arabaolaza, Orion, urriaren 18an.

EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik egon.

HILDAKOAK

- Inmaculada Arruti Azpiroz, Orion, urriaren 20an. 45 urte.
- Mertxe Azpiroz Lertxundi, Aian, urriaren 19an. 80 urte.
- Joxe Zubillaga Artola, Orion, urriaren 16an. 57 urte.
- Jesusa Iturri Etxabe, Orion, urriaren 14an. 82 urte.

Mollarri: historia eta kondairaira

Orio hedaturaz txikia da, kilometro koadro gutxi ditu. Hala ere, zenbat oriotar ote dago herriaren mugetan dauden Saikolara edo Mollarrira sekula ailegatu gabeak? historiaren betetako bi txoko horiek bertatik bertara inoiz ikusi gabeak?

Mollarri, berriz, Zarauzko itsasertzean dago, muga Aiarekin egiten duela, Oriotik oso gertu; gure arrantzaleek Umi-larri deitzen diote. Mollarri: Moila-harri. Zer historia gordetzen du moila izan zen harri eder horrek? Erantzuna Zarauzko kultur etxean dagoen erakusketak ematen du, Euskal Herriko itsasertzeko zama-lekuen erakusketak. XX. mendearen hasieran garrantzi handia izan zuten zama-

leku horiek, industrializazioaren garaian. Euskal Herrian Mollarrikoa bezalako 29 zama-leku egon ziren. Haietan ontziratzen zuten burdin mea itsasoz Ingalaterrara eramateko. Minerala Mollarri-raino ekartzeko airezko garraio sistema bat eraiki zuten, 11 kilometro luze zena. Txirrika batetik zintzilik, eskia-tzaileak bezala, iristen zen minerala kaxoi handi batzuetan itsasora, Andazarrateko meatzeetatik abiatu eta, Aian barrena, Orioko Gaineratik pasatuta. Espainiako luzeena zen; seguru asko, Europako luzeena. Mollarrik 15 urte iraun zuen lanean, 1909tik 1924ra. Gero, urte askotako lozorroan erori zen. Orain berreskuratzen ari dira, kul-


tur ondasun moduan.

Mollarrik badu historia. Orain istorio asmatu bat behar du, kondaira bat, historia borobiltzeko, Oskorriren kantuko bertsoek Bermeoko Gaztelugatxeko arrokarari eman ziotenaren tankerakoa: *enbata itzelak Gaztelugatxen untzi eder bat zuen hondatzen, euskaldunontzat barruan altxor handiak eizekartzan...* Kondaira on batek gehiago egingo luke Mollarriren oroimenerako, han ontziratutako mea-harri guztien historiak baino.

Ez litzateke gai txarra, Zarauzko, Aiako edo Orioko norbaitek heltzeko. Mollarri kondaira falta zaio; eta Orioko Aranarri, zer?

IÑAKI ITURAIN

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



GERARDO AZKUE ETA JOSU SUKIA | INGEMARRETIK KALERATUAK

“Kontzientzia lasai daukagu sinatu gabe jarraitzeko ere”

Egoera latza ari dira pasatzen Gerardo eta Josu, Ingemarretik kaleratutako 20 langileen artean baitaude, beste bost oriotarrek batera. Mugagabeko greba bukatu duten egun berean harrapatu ditugu, eta ez daude oso aldarte onean.

Nola gertatu dira gauzak?

Egun batetik bestera. Bagenekien Galiziako Ingemarren ere kaleraketak izan zirela eta gurean ere, hilabete baten barruan, izan zitezkeela komentatzen genuen langileon artean. Azkenean, hilabete eta erdira heldu zen notizia, burofaxez, jendea oporretan zela.

Ondo pentsatuta zuten dena, izan ere, kaleraketaren berri jasotzen den unetik astebete izaten da erreklamazio-etarako eta, gainera, irailera arte langile askok ezer ez zekienez, ez zen mobilizaziorik antolatzeke aukerarik egon.

Krisiak eragindako EEE famatu horietakoren bat?

Baita zera ere, hori izan balitz, sikiera... Produksioa jaitsi zela alegatu eta, horrela, langileon %10 kalera dezaketete inork kargu hartu gabe. Ehuneko bederatzikoma piko kaleratu dute.

Zenbat langile kaleratu dituzte?

Lehenengo, hiru kaleratu zituzten, berekin akordio batera iritsita eta, gero, hogeitartean Orioko zazpi, gu barne. Gu biok 10-11 urte generamatzan enpresan, beste batzuk 12, 13, 8... ofizinakoke, esaterako, 18.

Zenbat iraun du grebak?

Asanblea egin genuen eta dena sindikatuek aholkatu



Gerardo eta Josuz gain beste bost oriotar ere kaleratu dituzte Ingemarren. KARKARA

“Notizia, burofaxez, jendea oporretan zela heldu zen. Ondo pentsatuta zuten dena, erreakzioak gutxitzeko”

bezala egin zen. Lehenengo astean, egun bateko lan uztea egin genuen; bigarren astean, bikoia; hirugarrenean, hirukoa eta, egoerak berdinean jarraitzen zuela ikusita, beste asanblada deitu eta greba mugagabea egitea erabaki zen, gaur bukatutzat eman

“ELak galtzak jaitsi ditu eta ez du berean sindikatutako langile kalearatuagatik borrokatu”

den arte. Guztira, hilabete osoa, irailaren 22an hasi eta urriaren 23ra arte.

Baina greba bukatzeko ados jarri zarete?

Batzuk bai, gu ez. Lehenengo, gehienez, urteko 20 eguneko jorjala jasotzea

eskainiziguten, indemnezio gisa. Abokatuekin kontsultatu eta ez sinatzeko esan ziguten. Gero, jolasean aritu ziren, bati 35 egun eskaini, besteari 37, beste batzuei gutxiago... lana mantentzen zutenentzako urtebeteko lan bermea eskaintzen zuten lehenengo, gero sei hilabete, sindikatuek bi urte eskatzen zituzten... eta, azkenean, tarteko tratu bat egin zuten: 15 hilabete. Baina tranpa zuen; kaleratuok berek ezarritako indemnezioa sinatu behar genuen. Langileak berriz hartzea eskatzen zuen asanbleak eta ez zen proposamena onartu, beraz, lanuzteak aurrera jarraitu zuen.

Baina greba bukatu da.

Bilera egin genuen berriz atzo eta, gehiengoak hala ere, bakita, berriz lanean hastea erabaki zen. Ulertzekoa da, egoera gogorra baita eta bizi-tzan aurrera egin beharra baitago. Guk, hala ere, sinatu gabe jarraitzen dugu, ofizinetako beste birekin batera, eta kontzientzia garbi daukagu sinatu gabe jarraitzeko. Epailak erabaki beharko du kaleratzea legezkoa den eta, sententzia nulua bada, berriz hartzea ere gerta daiteke, baina oso zaila da, legeak enpresari-entzat egiten dituzte-eta.

Zerbait badaukazue gaineratzeko?

Alde batetik, eskerrikasko Orioko herriari, borrokan ginen bitartean zozketa bat egin baikenuen eta oso erantzun ona izan baitzuen jendartean. Bestalde, eta argi utzi nahi dugu, lotsagarria iruditzen zaigu kaleratuen artean ELAn sindikatutako bakarra-gatik –Gerardogatik– sindikatuek borrokatu ez izana, galtzak jaitsi baitituzte.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:11	06:41	07:11	07:41	08:11	08:41	09:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11
Zarauz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarauz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUZ - DONOSTIA

Zarauz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarauz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarauz	Zarauz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarauz	Zarauz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

OHARRA: lanegunetan kasero egindun ordutako autobusak urtebetik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, guztiak pasatzen dira. Kasero lurraldeko orduak lanbalekako (laneguna) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek daroma. Zerbitzuari buruzko informazioa lortzeko zerbitzu bide daude:

www.landabus.com Tf. 943 24 01 14 sms-a 5280 zenbakira

ITSASOA

ILEA	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
30	01:54 eta 14:06	07:56 eta 20:17	
31	02:30 eta 14:44	08:33 eta 20:51	
01	03:03 eta 15:19	09:07 eta 21:24	
02	03:36 eta 15:55	09:42 eta 21:58	☾
03	04:11 eta 16:32	10:18 eta 22:34	
04	04:47 eta 17:12	10:57 eta 23:12	
05	05:26 eta 17:55	11:39 eta 23:54	
06	06:09 eta 18:43	12:26 eta _____	
07	06:59 eta 19:38	00:41 eta 13:19	
08	07:59 eta 20:44	01:35 eta 14:20	
09	09:11 eta 22:03	02:39 eta 15:33	☽
10	10:31 eta 23:24	03:55 eta 16:52	
11	11:49 eta _____	05:14 eta 18:05	
12	00:32 eta 15:55	06:25 eta 19:07	
13	01:28 eta 13:51	07:24 eta 19:58	

ZAINZAKO BOTIKAK



URRIA/AZAROA

- 30ean, G. Artiñano.
- 31n eta Iean, Azaladegi.
- 02an, Larrañaga.
- 03an, Mutiozabal.
- 04an, Etxeberría.
- 05ean, Iriarte.
- 6an, Azaladegi.
- 6tik 13ra, Lasa.
- 14an eta 15ean, Iriarte.

Azaladegi: Urdaneta kalea, 8
943 13 31 83 Zarauz

Etxeberría: Gipuzkoa kalea, 17
943 83 23 98 Zarauz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12
943 83 29 70 Zarauz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16
943 13 38 14 Zarauz

Lasa: Herriko Plaza
943 83 09 36 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17
943 13 40 19 Zarauz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea
943 13 29 83 Zarauz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41
943 13 39 94 Zarauz

ELKARRETARATZEA

■ Orion, urriaren 30ean, euskal preso politikoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazio isila. Herriko Plazan, 20:00etan.

GIZA PROBA

■ Aian, urriaren 31n, Aiztondo-Oarso taldea Ibarra-Zestoa-Oiartzun taldearen kontra. 4.000 euroko apustua. 22:00etan, probalekuan.

ERROMERIA

■ Aian, azaroaren 1ean, Izer eta Alabier trikitilariekin erromeria Andatzako erromeri elkarteak antolatuta. 18:30etik 21:30era, Andatza auzoan.

ZERGAK

■ Aian ura eta zaborra kobratuko dute, 2009ko hirugarren hiruhilabetekoa. Azaroaren 2tik abenduaren 5era.

ASANBLEA

■ Orion, azaroaren 4an, herriko koadrilen arteko asanblea, OKK-k deituta. 19:00etan, kultur etxean. Gaia: Sanikolasak.

IRTEERAK

■ Urriaren 31n, Aranzadik antolatuta, Orioko Antilla hondartza eta Santioko padurarako flora eta

**Pintura eta eskultura**

Orion, azaroaren 9tik 30era, Tomas Esnaolaren, Iñaki Astiazaranen, Juan Luis Mendizabalen eta Manu Urbietaren pintura eta eskultura erakusketa izango da, kultur etxean.

Azaroaren 6an, ostiralarekin, inaugurazio ekitaldia egingo da, 19:00etan, eta, artistekin batera, Egunsenti otxoteak ere parte hartuko du.

landaredia ezagutzeko bisita gidatua.

■ Azaroaren 15ean, Ondarroa-Lekeitio txangoa Talai Mendik antolatuta. Izen ematea Lore eta Uranga burdindegietan; azaroaren 13a baino lehenago.

■ Azaroaren 25ean, Arantzazura irteera Zaharren Babes Lekuak antolatuta. Txartelak, azaroaren 10ean, 16:00etatik 18:00etara, Zaharren Babes Lekuan. Eskurtsioaren prezioa: 30 euro.

HAZI BANAKETA

■ Orion, azaroaren 7an, Landare eta zuhaitzen hazi banaketa. 11:00etatik 14:00etara, Herriko Plazan, Herrio natur taldeak antolatuta.

SILO BOLAK

■ Aian, azaroaren 10ean. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu: 943 81 65 00; edo bertako Igorrekin hitz egin.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, azaroaren 11n jasoko dituzte altzari zaharrak. Bezperan utzi behar dira zabor lekuetan.

BATZARRA

■ Orion, azaroaren 13an, Orioko Arraunketa Elkartearen urteko batzar nagusia. 18:30ean, kultur etxean. Segidan, ezohiko batzarra, junta berria aukeratzeko.

PODOLOGIA

■ Aian, azaroaren 14an. Ordua hartzeko udaletxean eman behar da izena.

KONTZERTUA

■ Azpetian, urriaren 31n, Arrautz Ustelak talde oriotarraren kontzertua Jonny Gerriweltekin. Txarrantxa tabernan.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Doako zerbitzua da gurea.

GALDUTAKOAK

■ Umearen urrezko katea galdu dut. Izena eta jaiotze data jartzen ditu: Eneko, 23-06-98. Norbaitek aurkituz gero deitu. 943 83 39 20 (Goxoki).
■ Hannah Montana

txandalaren txaketa (umeena) galdu dut Eusko Gudari kalea eta musika eskola tartean. 650 651 613
■ Kate bat aurkitu dut Sarasua atzeko zaborrontzian. E-L. 25-9-92. 650 651 613.

LAN BILA

■ Familia edota edadetuak zainduko nituzke gau eta egun. Eskarmentua badut. Tf: 686 042 732.
■ Ekitaldietako estruktura jartzen eta auto pilotuetako gidaritzan esperientzia dut eta lan bila nabil. Berehala hasteko. Tf: 634 872 383
■ Geriatrian titulatu naiz

eta edadetuak, haurrak... zainduko nituzke. Zainketan esperientzia dut eta badakit sukaldian ere. Tf: 639 409 421.

■ Etxeko lanak egiteko emakume eskarmentuduna. 637 905 695 (Celestine).
■ Edadetuak zainduko nituzke arratsalde eta asteburuetan. Eskarmentuduna. 600 745 686.
■ Ingenieritza teknikoko ikasketak eginak ditut eta banakako eskolak emango nituzke LH, DBH eta batxilergoko ikasleentzat. Deitu: 608 164 971.
■ Erizain laguntzaile eta

geriatrian titulatu naiz. Edadetuak zainduko nituzke. Eskarmentuduna. 663 914 329 (Kristina).
■ Edozein lan hartuko nuke: 639 409 421.

ALOKAIRUA

■ Pisu estreinatu gabea dut alokatzeko Armendigainen, Aian. 3 logela, bi bainu gela, garajea... 629 680 410.

SALGAI

■ Etxe berria salgai Goiko-kalean. Bi logela gehi bestea duplexean. Sukalde osatua, horma-barruko armairuak eta igogailua. 276.000 euro. 653 742 576 (Karme).
■ Etxe berria salgai Goiko-kalean. Bi logela gehi bestea duplexean. Sukalde osatua, horma-barruko armairuak eta igogailua. 276.000 euro. 653 742 576 (Karme).

